




Azalera handietako salmentak %1,0 jaitsi ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea




Iturria: Eustat.

Uztailean, EAEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,0 murriztu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean.

Jaitsiera elikaduraren eta gainerako produktuen bilakaerak eragin zuen, baina sektoreko enpleguak hazkunde erritmo biziekin (%2,2) jarraitu zuen.

IPIa %4,7 murriztu zen uztailean

Industriaren ekoizpena
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea



Iturria: Eustat.


EAEko industria jarduera %4,7 murriztu zen uztailean, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Jaitsiera hori batez ere energiaren bilakaerak eragin zuen (-%14,2), nahiz eta kontsumo ondasunak (-%0,8), ekipamendu ondasunak (-%0,8) eta bitarteko ondasunak (-%5,5) ere jaitsi egin ziren.



Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin du berriro

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzako afiliazioa abuztuan %1,8 gehitu zen. Horrela, goranzko joera berretsi du, eta abuztu batean erregistratu den kopururik gorena lortu du. Hain zuzen ere, 986.500 afiliazio jaso ziren. Kopuru hori ez dago aurtengo udako hilabeteetan lortutako errekorretik oso urrun.

Langabezia erregistratua berriro gutxitu da

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak



Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %4,5 murriztu zen abuztuan. Guztira, langabezian dauden pertsonen kopurua 108.700 da, eta abuztu batean 2008tik jaso den kopururik txikiena da. Langabezian dauden pertsonen artean, oraindik ere emakumeak dira kaltetuenak, guztizkoaren %60 inguru biltzen dutelako.